

TORIBIO ETXEBARRIA EUSKALARI ETA EUSKAL IDAZLE

Eibar, 1987-V-29

Juan San Martin

Jaun-andreok:

Toribio Etxebarria jaiο baiño urtebete lehenago estreinatu zan Eibartik trenbidia. Egun gogoangarri haretan hemen genduan Felipe Arrese Beitia otxandiar olerkaria, bere barrutiko bihotz-zirrara eutsi ezinik zetorren. Ordukuak doguz Eibarko burdin-bidiaren bertsuak, aurrerapenen etorkizunari begira, era honetan amaitzen diranak:

*Zure lurrin ta keia
Jaku pozgarria,
Lur leorrari legez
Trumoi ta euria,
Geienez oi dalako
Au izan ogia;
Zu bere zara gure
Mesedegarria;
Zuk, zuk biztuko dozu
Gure industria,
Bizi dedin! bai! bizi
Eibarko erria. (1)*

Esanguratsuak orduango giroa ezagutzeko. Bestalde, aintziñako armagintzaz gainera, pil-pillian egoan grabadugintza, "Objetos de Eibar" zeritzanak mundu zabalean ospea irabazita. Toribio berak erderazko lan batian agertzen deuskunez (2). Munduko Erakusketa haundien denporak ziran. Toribio bera be hortik abiatu zan buru-belarri grabadugintzako ofiziora. Ondo aukeratu be, jatorrizko usarixuegaz jabetzeko. Horregaitik emon eskun hainbeste barri biharrak berez dakarren jakituria zaharretik

(1) Ikus nere artikulua *Eibar* aldizkarian, 1959.eko Maiatzekoa, 6. orr.

(2) *Viaje por el país de los recuerdos*, 98. orr.

ikasía, "Arratetikuak" izenburuz datozen sarrera eta bertsuetan azaltzen dabenez (3). Era berian, erderazko prosan hainbeste aldiz aipatu zeskuna.

Eibartarrok, jatorriz, apartekoak giñan. Beste leku batzuetan umiak Paristik zetozen edo zigueñak ekartzen zituan; baiña, gu ez; gu, Arratetik (4). Hori izan zan errazoia Toribiok bere lehelengo euskal lanak "Arratetiko bat" izenordepean agertzeko eta *Lexicón* (Eibarko hiztegia) hari "Arrate'tikuen izketia" titulu orde z emotia.

Euskerarentzat hain ilunak ziran denporan, hemen bertan eibartarrik gehienak euren hizkera abandonatzen ebenean, zerk emon etsan kema-na euskerazko bertsuak eskribitzeko? Bihar bada Londresko egotaldian, 1959an egin zituanetatik atara geinke aztarrana:

*Soñuetan gura neuke aiñdu,
gorengo Zeruan ziar,
kantu eder baten ots gozu',
nere orduak beste bidar. (5)*

Era horretakoak bat baino gehiago dakarz *Ibilitarixanak* liburuan. Gainera, saririk bako biharretan aspalditik ondo ohitua zeguan gure Toribio:

*Sari bako gauzetan
aritzen danari,
ez interesa aittatu,
alperrik ba ari.*

Aipatzen dogun liburuan emondako batzuk lehenago literatura aldizkarietan agertutakoak dira, batzuetan zerbait aldaturik eta hurrengo gehi-garriz luzaturik. Esate baterako, liburu horretan Arratetikuen saila has-tean datorrena, bertsu barriak Eibar zaharrari (6).

Hasiera partia hartzen badogu, apologisten kondaira ameskoiak aur-kituko doguz. Euskal Herriaren sorrerak fantasiaz beterik, aintziñako misterio lauso batian. Egiliari hala zeritxon egokiena. Eta, hor azaldu zeskun Urko ta Galdaramiño mendi gaillurren ingurua. Arrate euzki-

(3) *Ibilitarixanak*, 46-51. orr.

(4) "Lexicón del euskera dialectal de Eibar", *Euskera*, 1965-66, 7. orr. J. SAN MARTIN, "Arraten sortzen da bizitza", *Iker-2*. Piarres Lafitte-ri omenaldia, 849. orr.

(5) *Ibilitarixanak*, 111. orr.

Liburugintzan hasi baino lehen, 1956. urtean, bertsoz ahalegindu zen *Euzko-gogoa* eta *Eibar* aldizkarietan. Gerorago, *Oleri* aldizkaria sortzeaz bat, 1959an, bertan kolaboratu zuen eta *Egan*-en ere bai 1964tik aurrera.

(6) "Bertso berriak Eibar zarrari", *Eibar*, 1956, Uztaila-Iraila zenb., 15. orr. Eta lan bera luzeago ikus *Ibilitarixanak* liburuaen 48. orr.

begian, Kiñarra-balleko harbelak, añubietako egurtzak, gure herri historiarren lehen dizdirak. Garibay mondragoarraren *Compendio historial*-eko Tubalcain pertsonajarekin nahastaturik eta apologetikaren murgilletik Ego erreka ibarrian urtetzeko; Egoren ibar horretan sortu zanez Eibar. Biblia-zale harentzat Jordanen pareko.

Bihar bada entzuliok harrituko zara eibartarrok Arraten sortzen gara-la eta gure epopeia Tubalcain-en etorreragaz hasten dala jakiteaz. Baina ezta gutxiagorako; ze, hemen, gure herri honetan, auzoko ez-ezik etxeko dogun Plaentziagaz batian badaukagu zer kontatu, gure historiagilleentzat oindiñoik ikasgai diranak. Inguru honek, Ermua be barru dala, Markiña-goia eratzten eban, Erdi-Aruan be batek badaki noiztik, eta XV. mendetik esku-suarmen egileak garaz, Marquart austriarra Karlos Enperadoriak Espainiara ekarri baino lehenagotik (7).

Holako gauzak jakiñik, nor uka lezkigu eibartarrok bestelakotasuna? Horregatik uste eban Toribiok Eibarko hizkera bestek ezlakoa zala.

Aintziñatik ezagutzen ziran hemen zazpi ofizio eta ostianguetan bazan zer aukera biharrari eskuak eskintzeko. Oraingo Markiñaldetik etorri ei zan kaiñoigintzara entzute haundiko Bustindui armagiñen senitxarteko zan Franzisko Etxebarria zeritxon bat Irustarren sutegira. Hor finko ipintzen dira Toribioren sustriak. Bizitza Unibertsidade egingo eban gizona. Berezkoa ekarrela? Burua jakintza guraz hornitzen dabillen gizonarentzat ezta berezkorik.

Gure armagintzan, aintziñatik zetozen ataujia apangarriak, Eibarren inkrustaua zeritxona. Jovellanos-ek emon zituen bere barriak (8). Horrez-gainera zerbait gehiago zan juan zan mendearen amaierara orduko. Armagintzaren adar lez Ofir-ko urrez, Damaskon legez, edergintzari emonak ziran Eibarren, batez be Zuloagaarrak illaran puntarengo danian urtenak ziralako. Hobeto esateko, *Eibarko damaskinadua* liburuaren hitzaurrean

(7) *Ibiltarixanak*, 49. orr. Baina, honako ohar hau gaineratuko diot, irakurleak behar bezala uler dezan: Markina Merindatea, oraingo Markina-Jemein eta Markina-Etxebarria baino zabalagoa zen. Inguru horren hiriburu, Elgoibar zen. Horregatik, 1346. urtean, "Villa" izendatzean, *Villamayor de Marquina* zeritzaion. Merindate behea zen eta bertatik Mendarorainokoa *Marquina de yuso* zen. Merindate horren goikaldea ordea, agiri zaharretan agertzen denez, *Marquina de suso* zen: Eibar, Plaentzia-Soraluze eta behar bada Ermua ere hartzen zuen eskualdea. Bertan, Karlos Enperadoreak Austriatik Marquart armagina Espainiara ekarri baino lehenagotik egiten ziren "Espingarda" zeritzan esku-suarmak, Solerengandik hasita Espainiako historiagileek ez badakite ere. Noizbait zuzendu beharrezko hutsa deritzagu, eta oker hori zuzentzen ez den artean, behin eta berriz, okaziorik dugun guztian, salatuko dugu, eskualde honetan zer izan den eta noiztik suzko armagintza. Honetarako, ikus Ramiro Larrañagaren *Sintesis histórica de la Armeria Vasca*. Donostia, 1981.

(8) G. M. JOVELLANOS-ek aipatzen du bere *Diarios*-en, 1791.eko Abuztuaren 2lean egian zuen bisita kontatzean.

esan nebana barriz gogoratuko dot. Ez da larregi esatea José Martí poetak Estadu Batuak bisitatzian esan ebana kontuan hartzen badogu: “Ez dago John Whittier, kuakeroa, Eibarko langileek bezala, burdina bigunduan eskuz zilar eta urrezko hariak birlantze eta perlorriz, ñabardu eta errekatutzen dakiena” (9). Giro haretan, Toribio lako espiritu kezka-
tiak bere lehen ofiziotzat hori aukeratzea ezta harritzekua. Ez zan hasiera txarra bizitzan zihar lanak ondo egiten ikasteko.

Baina, Eibarren, ogibideaz gainera, ideak zelako? Hara ba, egia esan, Karlisten bigarren gerrate ondotik “goitarra” edo “betarra” izatiaren gora-behera zan. Hiri-bildua (Villa), kasko zaharra, San Andres parrokiaren ingurua zan, errekatik hegoaldera, hor eta hortik errekan gorakuak ziran “goitarrak”; hortik kanpora, Errebala eta handik beherakuak, “betarrak”. Goitarra edo betarra izatiak ez eukan zer ikusirik zero-infernuegaz. Kristau fedetik begiratuezkero, aldrebez izango litzake. Ze, goitarrak hirutik bi ez ziran elizara juaten eta betarrak hirutik biterdi bai, gutxienez. Ideetan barriz, ezker eta eskumen arteko diferentzia haundia zan. Eta ezkerren artian euskerarako zaletasun gutxiago agiri zan. Ikusten danez, sortzezko inguruak moldatzen eban gizona, gehienetan beintzat, eta Toribio Txirixokalian jaiua, goitarren biotz-biotzian. Berezko joera baekarren be, leku ederra ezkertiar izateko.

Euskeraz eskribitzeko sortu jakon gogua nolazbaitx justifikatu gura eban, ze bere burua zerbait aldendurik ikusten eban euskal idazlien artian.

Eibartarrok harruak garala diñuenez, egia izango da. Baina eibartarrok geure hizkeriari gutxietsirik bizi izan gara. Gu, Tolosan eta Donostian hizketarik onena, politena eta dotoriena egiten zan ustekoak ginan.

Toribio berak sarri aipatuko desku, bere burua zuritu bihar baleu letz, Eibarko hizkeraz, edozertaz errez egiten ebela berba: “Desde luego, la costumbre de no prescindir del euskera para tratar de todo lo divino y lo humano, tanto en la calle, en el trabajo y en el hogar, como en el Ayuntamiento y otras Corporaciones, amén de las Sociedades obreras que precedieron a los Sindicatos, en una localidad que, si bien llena de tradición, ha realizado como en un microcosmos abierto a todas las influencias del siglo...” (10).

(9) *Eibarko damaskinatua*, R. Larrañaga eta P. Zelaia, J. San Martinen hitzaurrez. Eibar, 1981. (Garai berean erdarazko edizioa ere agertu zen, *El damasquinado de Eibar* izenburuaz).

(10) “Lexicón...”, *Euskera*, 1965-66, 7. orr. (“Flexiones verbales de Eibar” eta “Lexicón del euskera dialectal de Eibar”, biak batean argitaratu berri ditu Euskaltzaindiak Eibarko Udalarentzat, eta dei honetan aipatzen dena 95. orrialdean dator).

Bere burua zuritze horri esker, eibartarrez eskribitzera atrebidu zan, ekintza horrek bedorrek emon zetsan gure herriko hizkera erregletara makurtzia; hola sortu ebazen “Flexiones verbales” aditz laguntzailiaren erabillera eta berbak sailkatziaz “Lexicón” burutzea.

Hala jokatu biharrian, beste asko lez euskera bera hobetu nahian aztartzen eta sakontzen hasi balitz, bihar bada hizkuntzaren goresmenak erderaz agertuz amaituko eban. Baina, inork jakitekotan Toribiok ondo ekian fedea obrekin bete bihar zala, bere bizitza guztian hala erakutsi ebanez. Izan be, aspalditik genkian armagiñon herrian: balizko oliak burdinarik ez.

Normalena zan zerbait praktiko burutzea, bestientzat be probetxuzko izan zedin eta hortik ahalegindu zan hainbeste aldiz aipatzen eban “de lo divino y lo humano” ber-berak zekian euskera motan plazaratzera. Bere lumatik irakorri geinke *Ibilarixanak* liburuaren bertso sail batian:

*Euskeraz laburra dala
gaurko askon esakeria.
Laburra, bada laburra
Aman euskal itzaldia,
jan biharrian lastanka
bere sabeleko umia.*

.....
*Laburra, ala izatera,
gure zarren ipointzia,
bata barre eraitzekua
negarrerakua bestia;
ta danak, bai ta ez alaiak,
detsuenak artuko urtia,
amaitzera eldu baño len
dakarren buztan luzia. (11)*

Eta almalzen aberatsa eukan Toribiok bere barruan, kontakizunik falta ez jakona.

Bizitza sakon bezin urduria euki ebanetakua genduan eta zer kontaturik ez jakon falta, bai ideaz eta bai gertakariz. Guztia eskribitzeko, erderaz baeukan hizkuntzazko modelurik, baina ez bere herriko hizkeran. Berak hori gura eta hori bihar. Ekintzarako sostengua bihar, nahitaezko euskarria: gramatika eta hiztegia. Hortik hasi biharriak aurkitu zan *Flexiones verbales* eta *Lexicón* burutzera. Aurten Eibarko Kontzejuak hain egoki barriz argitaratuak. Horrek izan zituan Toribiok Eibarko euskeraren oinarri eta euskarri. Bai, euskarri. Gaurko euskaltzaliak “sopor-

(11) *Ibilarixanak*, 156. orr.

tea” edo esango leukie, informatikatik erderaz hartu dabien modura; baina Toribiok, damaskinadu grabatzaile izatetik ekian urre eta zidarren euskarri (=soporte) galtzairu dultzia zala.

Gramatika eta hiztegi biharrok nolabaitz eskertu nahirrik, 1965. urtian, Euskaltzaindiak urgazle izendatu eban. Eta hori da gaur erakunde honen presentzia, 1959an Juan Antonio Mogelegaz egin eban bezela.

Toribio Etxebarriaren idatzizko obrarik gehiena zahartzarokoa da, biharretik erretirua hartu ondorian egina, eta bere bibliografia benebenetan oparua da. *Flexiones verbales y Lexicón del euskera dialectal de Eibar* birargitaratzian egin netsan azalpenian emoten neban nahikua argitasunegaz. Baita *La liga de naciones y el problema vasco* izendun liburu-txoarena be (12), eta gaurkuan Jesus Maria Leizaola jaunak beste batena emongo desku, Testamentu Zaharreko Danielen liburua, inoiz argitaratu bakua; guztiz, 102 kuartilla mekanografiatuak, holako tituluz: *Liburtadi Santuko Daniel deritzen dan atala*. Kopia da eta eskuz Leizaola jaunari eskeiñia; honek, aurten bertan Euskaltzaindiko “Azkue Biblioteka”-ra emona. Lehendik Tamar, Ruth, Bethsabe, Tobias eta Job *Ibiltarixanak* liburuan argitaratuak eukazen.

Zer ez dakar Toribiok bere obra ugarian? Biblia zalia zan, eta berak esaten zeskunez, behin eta berriz atalka atalka irakurtzen eban, humanidadearen esperientziak beste inun baino hobeto batzen ziralako beti ikasten ei eban zerbait barri. Guk bere obran somatzen dogu joera hori, bere humanismoaren esperientziak eta ikuspegiak ikusten diralako eta lanok ez dira behin irakorri ta bertanbehera lagatzekuak. Batian liburu on bat zer dan erakusteko bertsuak, bestian Jaungoikuari buruzkoak, hurrengo Kartzelakuan Aita-guria, baina Naturaren alde fisikuagaz ahaztutzeka galasiak eta atomuak eta abar. Bere berezko apaltasunian ez dau haundikeririk egin nahi eta jakintza kontuko kapitulu bat “Sasi filosofuanak” titulauko dau.

Itzulpenak, humanista bati tokatzen jakon mailan, Testamentu Zaharreko zenbait zatiz gainera, aintziñako ipuiñak zituan gogoko eta euren artean Nafarruako Margaritaren *Heptameron* itzuli eban. Eta ez dira gutxiagorako, latinez eta eibartarrez, XII. mendeko arlotearen konfeziñua, *Ordo Vagorum*, Karmina Burana-ren *Obmitamus studia* edo edale jatorrarenak (13).

Hiztegia bera, *Lexicón*, hiztegi bat baiño zerbait gehiago dala esan geinke. Berba baktxaren erabilera bere kontestuan emoten dau eta

(12) *Flexiones verbales y Lexicón del euskera dialectal de Eibar*, 1986. Aipatzen denaren xehetasunak ikus 8-9. eta 13. orrialdeetan.

(13) *Ibiltarixanak*, 329-332. orr.

kontestua bera da berba illarak haiña balio dabena, hor batzen dituan ez esaldiak, anekdotak, kanta zaharren zatiak, ohiturak, ideak eta abar; historiari z gainera etnografiako baliuak.

Gaur hemen euskerazko partiaz dihardut, baina erderazkuagaz be ez gara ahaztu bihar; ze, bai euskeraz eta bai erderaz, bene benetan ugaria bezin aberatsa izan da bere ekarria eta eskintza, ideetan lez eginetan. Aspergarria izan leike irakortzeko ohiturarik ez daukanarentzat, baina ahuleziak uxatzeko interesantia da, bere edukiña, kontenidua, jakingarria danez. Ez da nik diñodana, Piarres Lafitte zanak baino. Hala! Esan badot, esan dot, euskaltzain gogoangarriaren izena, eta Toribio goresteko ez zan aukerakuagorik. *Ibilarixanak* argitaratzian egin etsan komentariuan lan bikaña eritzi jakon (14). Ideen aldetik be, gure idazlien artian apartekua zeritxon, sozialista liberala, Proudhon-en ideetatik Marx-engandik baiño hurrago ebillena, humanista borondatez eta izatez kristau merezi ebana. Hara zer ziñuan sozial estudiuen saio batian: "Mais plus original nous paraît Toribio Etchevarria d'Eibar, qui est mort l'an dernier au Vénézue-



(14) P. LAFITTE, *Egan*, 1967, XXVI, 117-118. orr.

la. Il a exposé en plusieurs ouvrages un socialisme libéral plus proche des idées de Proudhon que de celles de Marx, un socialisme plein d'une spiritualité irénique et charitable qui aurait mérité d'être chrétienne" (15). Lehen frantsesez eta gero euskeraz barriz aipatzeko: "Ezin ahantzia zaiku Eibar-eko Toribio Etxebarria zena. Asko liburutan sozialismo liberal bat aurkeztu du, Marx-keriarik gabekoa, osoki bakeari emana, girixtino izaitea merezi zukeena" (16).

Honegaz, ez tala asko, Hendaian bizi dan Mariano Aizpitarte eibartarrak esan zestana gogoratuko neuke. Mariano, bizi guztian UGT-kua eta sozialistegaz konpontzen ez zana, gerrate aurreko gauzak kontauaz sozialisten zenbait ekintzagatik gaizki esanka, argitasun bat emon biharian agertu jatan, esanaz: "Ni, beti ugetista izanarren, sozialistekin inoiz ez nok ondo konpondu". Harritu txamar esan nesan: "Ba, Toribio Etxebarria, bere exiliuan, Europara etortzen zanian zure etxian egiten eban egotaldi bat, bertara agertzen jakozen Eibarko adiskidiak eta nik neuk be hemen bizitatu neban". Marianoren erantzun bakarrak dana esaten eban: "A!; baina Toribio santu bat zuan".

Izan be, bere bizitza zuzentasunez eta zintzotasunez bete eban. Nornahi kezkatzekuak eta pentsaeraitzekuak dira oraintsu *Eibar* errebitan Lukas Alberdik agertu dituan agiriak (17). Lukasek, hamalau urte eukazenetik jarraitu zituan Toribioren pausuak eta artikulu horretan, dan laburraren barruan, hor datoz Toribioren gizontasuna erakusten dabentestigantzak.

Ez eban laga lorratz lordiñik bera pasau zan lekuetan, baina bai gauza goguangarririk.

Barriz esango dot, munduak hain urri emoten dituan gizonetariko bat zala. Bertsuak eta hizlaurkuak, duan eskindu eskuzen lez jardun eban duan mundu hobe baten alde, gizonen arteko justiziaren alde, ogibide ondrauaren alde, bere buruarentzat ezer opa barik.

Pasarte batian ber-berak diño, "indiano" gogoz ebillen erbesteratu batek liburugintzan ikustiaz, esan ei zetsan: "Orrek biarrok denda baten ingo bazenduz, zenbat bolivar!" (18).

(15) P. LAFITTE, "Les courants de pensée dans la littérature basque contemporaine", *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, Nouvelle série n.º 119 des 3^{me} et 4^{me} trimestres 1968. Bayonne, 1969.

(16) P. LAFITTE, "Mende huntako euskaldun idazleen pentsa-bideak", *Gure Herria*, XLIX, 1974.

(17) Rev. *Eibar*, n.º 289, Otsaila, 1987, 11. orr.

(18) *Ibilarixanak*, 20. orr.

Horixe da gizonaren gogua ez ezagutzia, ez gogua eta ezta naturale-
zak berez egunero erregalazten deskuna; Toribiok bertso batian hain
egoki esana:

*Beti duan eta berez
munduko gauza ederrenak
duan txorixak kantari,
duan dira lorak ederto
janzten, gorri eta zuri,
Salomon baño be obeto:
duan iturrixak ura
t'Arrate'k ifar-aizia;
ta basuak ezkurra,
ta zugatzak kerizia.
Duan euzkixak argixa,
Iragixak gau-zidarra,
Munduak zer-ikusixa
et'Itxasuak indarra. (19)*

Badogu nun ikasi. Zordun giñan eta gara. Ondo merezia eukan
aurten Eibarrek bere seme gutunen arteko izendatzia, gogoz kontra er-
besteratu zana. Ondo mereziak daukaz omenajiok; baina izan leikian
omenajerik onena, bere lanak irakurtzea.

(19) "Ondakiñak", *Egan*, 1976-79, 39. orr.